

UROLA ITSASADARRA BABESTEKO ETA MANTENTZEKO PLAN BEREZIA


1. FASEA: BILERA IREKIAK

C.- Oikia

1. Plan Bereziaren helburuak

- Baliabide naturalak kontserbatu, hobetu eta berreskuratu.
- Estuarioaren berezko dinamika bermatu, berreskurapena ahalbidetuz.
- Habitatak eta fauna-flora espezieak kontserbatu, eta arriskuan edo ahulenak direnak babestu.
- Uren kalitatea bermatu.
- Espezie exotiko inbaditzaileak ezabatu.
- Hiritarren presioa eta aisialdirako erabilera arautu.

2. Plan Bereziaren eremua




Azalera osoa: 160,32 Ha.

Azalera Zumaian: 154,56 Ha (%96,4).

Azalera Zestoaan: 3,72 Ha (%2,3).

Azalera Getarian: 2,06 Ha (%1,3).

3. Dornutegi-Oikia eremua



Azalera: 39,83 Ha (Plan Bereziaren %24,8)


Azalera Zumaian: 39,83 Ha.

4. Udalaz gaindiko plangintza eta esparru juridikoa

- Itsas-lehorreko Jabari Publikoa eta babeseko zorgunea: ibaia eta ibaiertzak Itsas-Lehorreko Jabari Publikoaren¹ baitan geratzen dira (13,45 Ha, Dornutegi-Oikia eremuaren %34). Ibaiaren ingurua eta alboko mazelak berriz (22,73 Ha, eremuaren %57) babeseko zorgunearen² arauen menpe daude (Kosten Legeak ezarritakoaren arabera). Beste zenbait eremu Jabari edo Zorgune hauetatik kanpo geratzen dira, hala nola, Kondealdean eta Errenteri aldekoan.
- Plan Bereziaren eremuaren baitan geratzen den ibaiaren azken zatia, Xey industrialdearen eta Errotagain zubiaren artean, Jabari Publiko Hidraulikoa da eta, beraz, Uraren Legeak ezarritakoak dagozkio.


¹ Gaztelaniaz Dominio Público Marítimo Terrestre

² Gaztelaniaz Servidumbre de Protección




- Errepideen babeseko zorgunea: A-8 autopistari dagokion Jabari Publikoak 8 metroko zabalera du errepidearen alde banatara eta babes eremuak berriz 100 metroko zabalera alde banatan. GI-3760 errepidearen kasuan, Jabari Publikoa eta babes eremua 3 m eta 30 m dira alde banatan, hurrenez hurren.
- Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek (LAAek) 'Urolako bokalea' eremua, 'interes naturalistiko duten areak' deituriko zerrenda irekian izendatu zuten 1998 urtean.

- Horren ostean, 2004. urtean, Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana (LAP) onartu zen. Lurraldearen antolaketako tresna honek ibaiertzetako tarte batzuk 'ingurumen hobekuntza' kategorian izendatu zituen (MA2-2), 'Berreskuratu beharreko eremu andeatuak' azpikategorian. Tarte horiek nahiko estuak dira, Dornutegi inguruko bi ibaiertzeetan izan ezik, hor tarte zabalagoak sartzen dituelarik, erriberen berreskurapena eta hobekuntza bultzatuz. Tarte horiek eremu urpegarriak dira, uholde arrisku handiko guneak.
- 2006 urtean onartu zen Urola Kostako Lurralde Zatik Planak (LZP) berriz, ibaiertzak izan ezik, gainerako eremuak 'nekazaritzarako interesa duten eremutzat' izendatzen ditu Dornutegi eta Oikiako zatian.



- Natura 2000 Sarea. 'Urola Itsasadarra' Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE). Europa mailan babesa behar duten naturguneen sarea da, 1992ko 'Habitat' Europar Zuzentarauaren bidez martxan jarri dena. 2010ko abenduan hasierako onarpena lortu zuen eremu honen 'Kudeaketa planak' 2003 urtean eremu honentzako finkaturiko jatorrizko mugak zabaltzea proposatzen du. Plan Berezia egiteko aipatu proposamenean jasotako eremua hartu da oinarritzat.



5. Udal plangintza egituratzailea (Arau Subsidiarioak)

- Zumaiaiko zatia:
 - Babes Berezia (10.S.O. Urola ibaia).
 - Nekazaritza eta abeltzaintzako zona eta landazabala (D.2).
 - Ingurugiroaren hobekuntza (D.1.7.). Mantzisorreko irla.

6. Udal plangintzaren garapena (Onartutako Plan Bereziak)

Ez da garapeneko Planik egin eremu honetan.

7. Oikia ingurunearen bilakaera

1954ko ortoargazkian ikusi daiteke Yarzako presa eta zentrala martxan direla oraindik. Meandro osoan nekazaritzako erabilerak dira nagusienak. 70ko hamarkadan hasi ziren aldaketa nabarmenenak, autopista eraiki zenean, auzoa eta erriberetako sailak, baita zenbait baserri, banatuz eta aldenduz. 1981ko ortoargazkian, A-8 eta Xey – Guascor industriaguneak eraikiak daudela jadanik ikus daiteke, eta Gorostia gako meandroan desmontatze eta betelanak egin gira. 90ko hamarkadaren erditik aurrera J.M. Korta industrialdea eraiki zen.



1954




1983



2001

8. Jabetza

Itsas-lehorreko Jabari Publikoa eta Jabari Publiko Hidraulikoa izan ezik (eremuaren %36 inguru), gainerako partzelek jabe pribatua dute. Kasu gehienetan Dornutegi eta Oikiako zenbait baserrirenak dira, hala nola, Torre, Torrontegi, Konde, Epiola-azpikoa, Soburuzgoikoa, Soburuzbekoa, Lasalde, Lore, Errenteria, Otxango-behekoa, Otxango-goikoa, Bokoerrementerikoa, Juliñene, Pikaondobekoa, Pikaondogoikoa, Lizarraga, Epiola-goikoa, Benezia, Iparragirre, Goiburu.



Zenbait kasutan partzelen jabeak ez ditu zuzenean erabiltzen, beste zenbait ustategiei edo banakakoei erabiltzen uzten dietelako (utzi, trukean, alokairuan eta abar).


9. Baliabide naturalak

- Ibaiaren eskuinaldean, Torre baserriaren azpialdean, malda handiko mazelak dira, %50 baino gehiagoko penditza duten areak ugariak direlarik.
- Ahalmen agrologikoa: Dornutegi eta Oikiako erriberetan ahalmen agrologiko handiko lurrak daude, laboreak (baratzak, artoa, babarrunak eta abar) eta segabelardiak tartekatzen direlarik.
- Estuarioaren uren kalitatea (Ur Agentziaren jarraipen sarea): Ona.

- Landaredi potentziala:
 - Artadiak.
 - Hariztiak eta Baso misto atlantikoak.
 - Ibaiertzetako altzadi kantaurrea.
- Interes komunitarioko habitata:

UE KODIGOA	Deskribapena	Azalera Plan Bereziaren eremuan (Ha)	Plan Bereziaren eremuaren %	Azalera Dornutegi-Oikia eremuan	Dornutegi-Oikia Eremuaren %
1130	Estuarioa	35,18	21,94%	7,76	19,48%
1140	Itsasbeheran estali gabe geratzen diren lautada lohitsu edo hareatsuak	14,82	9,24%	0,025	0,06%
91E0*	<i>Alnus glutinosa</i> eta <i>Fraxinus excelsior</i> ibarbasoak	3,52	2,20%	3,40	8,54%
9340	<i>Quercus ilex</i> eta <i>Quercus rotundifolia</i> basoak	24,88	15,52%	0,92	2,31%


- 9340 habitata izan ezik, gainerako habitaten egoera 'desegokia' edo kasu gehienetan 'ezkorra' da 'Urolako Itsasadarra KBE'n.
- Mantzisorreko irla, estuario eta ibaiertzetako habitatak berreskuratzeko eta zabaltzeko potentzial handiko gunetzat kontsideratua izan da. Gune horren ingurumen berreskurapenak 1130, 91E0* habitaten egoera hobeto luke batik bat.



- Fauna: Urola ibaia izendatua dago lehentasunezko banaketa eremua 'Bisoi europearra' mehatxatutako espeziearentzat. Horrek esan nahi du potentzial handiko area dela ingurune hau, nahiz eta gaur egun bertan ez azaldu.
- Espezie exotika eta inbaditzaileak: Urolako itsasadarraren zati honetan ugariak dira zenbait espezie inbaditzaileak, *Fallopia japonica* eta *Arundo donax* (kañabera) bereziki. Ibaiertzetako jatorrizko landaredia (haltzak, lizarrak, sahatsak) platanoekin ordezkaturia izan da, baita ere, tarte askotan. Azpimarratzekoak dira, duten azalerengatik, Mantzisidor aldean platano-landaketak dituzten zenbait partzela.

10. Ingurumen arriskuak

- Uholde arriskua: Oso handia Dornutegi eta Oikiako erriberen inguruan.




- Higadura arriskua: Oso handia mendi-hegaletako %50 maldak dituzten mazeletan, zuhaitz-estalkia ez duten sailetan, batez ere. Luizi txikiak antzeman dira Torre baserriaren inguruko larreetan.
- A-8 autopistatik jasotzen den zarata maila handia da, 65 dB(A) tik gora egunean zehar (Lden indizea). Oikia eta Dornutegi ingurueta eremu askotan jasaten da. Azpiegitura honek ez du zati honetan sortzen duen zarata murrizteko inongo elementurik.

11. Erabiltzaileak

- Jarduera ekonomikoak: nekazaritza batez ere (baratzak eta bazka laboreak, segabelardiak, fruitondoak); basogintzak pisu txikiagoa du zati honetan.
- Aisialdia: oinezko paseoak eta ibilbideak, arrantza (banakakoak), piraguistak (banakakoak).
- Kirola: piraguistak (Itxas Gain Kirol Elkarte), arraunlariak (Aita Mari Arraun Elkarte).

12. Eremu andeatuak eta aurreikusitako arazoak

- (1) Uholde arrisku larria zenbait eremutan (Dornutegi, Oikiako erriberak eta abar).
- (2) Higadura arriskua eskuin ibaiertzetako zenbait puntutan (A-8 inguruan, Dornutegin); luizi arriskua zuhaitz-estalkia ez duten malda handiko mazeletan (Torre inguruan).
- (3) Ibaiertzetako landaredi eza (haltzadi-lizardi kantauriarra, sahasia) tarte gehienetan.
- (4) Nekazaritzako erabileren eta ingurumen kontserbaziorako jardueren arteko oreka lortzeko zailtasunak.
- (5) Espezie exotika eta inbaditzaileen hedapena ibaiertzetan, bai ibaiak edo erabilitako makinek ekarritakoa (*Fallopia japonica*), baita bertan landatutakoa ere (kañabera, platanoak).
- (6) Mantzisidor inguruan zegoen zentraleko kanalaren uren irteera itxita dago, osasunaren kalterako izan daitezkeen putzuak sortuz. Kanalaren irekiera eta irlaren berreskurapenak (eremu osoa edo zati bat urpegarria bihurtuz eta platanadia haltzadi batekin ordezkatuz), beste jarduera batzuekin batera, goi aldeko baldintza hidraulikoak hobetu ditzake.



13. Natura eta giza paisaia:

- Kalitateari eusten dion giza paisaia da, nahiz eta jatorrizko landaredi potentziala ia desagertua den eta autopistak bitan zatitu duen. Landazabala paisaiak nekazaritza eta basogintza uztartzen ditu, eszena erakargarria osatuz Urola ibaiak egituratutako eremuan. Ikusgarritasun maila handia da Oikia auzotik eta A-8 autopistatik.
- Ondare kultural eta arkitektoniko aldetik eremuaren barruan elementu gutxi gelditzen badira ere, giza paisaiari dagozkion adibide eta kasuak badaude eremu honen ertzetan.
- Eremu honetan, Plan Bereziaren eremu osoko nekazal paisaiaren presentzia handiena dugu, paisaia naturalarekin nahasten dena. Giza paisaiari dagokionean, oso bestelako ezaugarriak ematen dizkio honek zonaldeari.
- Oikiako eremua ez da azaltzen Paisai katalogoaren zirroborroan (CPSS9) aipatzen diren *‘Paisai Kalitate Helburuen’* artean. Hala eta guztiz ere, badira aipatzeko moduko hainbat gauza:
 - Korta Poligonoaren gain-presentzia, bai eta poligonoa eraiki ahal izateko mendiari kendutako zatiarena ere: 30 urte igaro eta gero, operazio osoaren artifizialtasuna agerian da oraindik ere.
 - Nekazal paisaia eta zelaiei irudiak A-8 autopistatik garrantzi handia hartzen du: nekazal paisaia bizirik eta martxan somatu daiteke, errepidetik oso gertu. Maila berean egoteak eta gertutasun honek, naturaltasunaren indartzea dakar eta mantentzekoa da.
 - Oso eskema ona eta orekatua da, batez ere eraikinek kalitatezkoak direnean: Kondekua eta Epeolazpikoa Zaharra etxeen kasuan. Azken honen kasuan, oso gertu ikusten da kotxetik, interes handiko eraikina da, baina tamalez ez dago oso egoera onean.
 - Ibaiaz bestaldeko nekazal paisaia ere (Dornutegi ingurukoa) indarrean ikusten da. Badira bertan harrizko hainbat paretatxo zahar zelaiak banatzen dituztenak, nahiko ondo mantendutakoak eta giza paisaia egituratzen laguntzen dutenak.
 - Inguru honetan egindako tokiko errepideak, artifizialtasun eta presentzia baldar puntu bat du, eta berau sostengatzen duen harrizko lubetak ez dio mesederik egiten inguruari.
 - 12.atalean proposatzen den irla zaharraren (*‘pantanua’*) berreskuratzea, abagune eder bat izan daiteke ingururako.
 - Paisaia aldetik, platanondo osaturiko zuhaitz multzoak, identifikagarria den unitate bat osatzen du, abiapuntu ona dena. Haltzadi berria proposatzeko momentuan, kontuan hartzekoa litzatekena.

- Bestalde, Oikiaren kokapena eta jatorriaren harira, mendialdean dagoen auzotik jaitsi (Ibañarrieta) ibairaino (Mantzisidorreko zubia) eta zubiaz bestaldetik Zumaia-antz jarraitzen zuen (Karakas ibarratik behera) bere garaian oinarritzko bideari garrantzia ez kentzea komenigarria litzateke. Zentzu honetan, bidearen inguruan honelakoak identifikatzen dira:
 - Autopistaren gainetik pasatzerakoan, bidea zubi batean bihurtzen da. Zubi hau oso era bortxatu eta artifizialean planteatua dago, inguruari mesede gehiegirik egin gabe.
 - Yartzako Zentrala: Eraikin interesgarria da, izan zuen funtzioarengatik eta baita ur-mailan duen kokapen bereziarengatik. Baina oso egoera txarrean dago eta zahar-berritze lanak eskatzen ditu.
 - Mantzisidor Zubia: harrizko zubi bikaina da, bere horretan mantentzekoa. Baina honen monumentaltasuna areagotzeak, garai batean zubiak izandako garrantzia islatuko luke. Garrantzi hori hareagotzeko, ikusgarritasuna landu beharra dago, inguruetatik gehiago ikus dadin. Zubira iristen den hormigoizko bidea ere baldar geratzen da halako interesa duen eraikuntzaren alboan.